

INFLAZIOA

EAEko inflazioa %1,0an kokatu zen maiatzean

KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa




INEk maiatzeko KPI indizeaz argitaratu dituen datuek adierazle horrek jaso duen moteltze nabarmena islatzen dute. Izan ere, aurreko hilekoaren aldean zazpi hamarren jaitsi da eta %1,0an kokatu, argindarraren merkatzeak eta erregaien igoera txikiagoak bultzatuta. Beraz, hiru hilekotan bizi zen igotzeko joera amaitu da. Orobat, ekaineko aurrerapenak pentsarazten du prezioen moteltzeko joerak hileko horretan ere jarraitu zuela.


KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019ko maiatza	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	1,0	1,0
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	0,9	0,7
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	0,1	0,0
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	0,2	0,0
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,6	0,7
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	1,5	0,3
- Landu gabeko janariak (%7,6)	3,7	2,9	-0,2	0,0
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	2,7	0,3

Azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: INE.

Brent motako petrolio upelaren eguneko prezioa

Dolarrak



Dagoeneko aipatu den erregaien garestitze txikiagoaren jatorria petrolio gordinaren salneurriaren beheranzko joeran datza. Izan ere, upelaren prezioa 64 dolarren inguruan ibili zen. Halako baliorik ez zen urte hasieratik jasotzen. Merkatze horren ondorioz, garraioaren aldakuntza tasa puntu bat eta hiru hamarren jaitzi zen, %4,7tik %3,4ra. Hala eta guztiz ere, aurreko epealdiaren aldean beherakada handiena izan zuen taldea etxebizitza izan zen. Hain zuzen ere, talde horren tasa %2,2tik %-0,5era murriztu zen, iazko garestitzearekin alderatuta, argindarrak aurtien jaitziera nabarmena izan zuelako. Orobat, azpimarratu behar dira aisialdia eta kultura taldearen (%-0,8) tasa negatiboa, apirilean Aste Santuaren eraginagatik balio positiboa jaso ondoren, eta edari alkoholodunak eta tabakoarena (%-0,2), edari alkoholodunen azpiatala balio negatibotik (%-0,8) kokatu zelako. Halakorik ez zen 2015eko amaieratik gertatzen.

KPIaren talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasak. 2019ko maiatza

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	1,0	0,8	1,2
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,1	0,5	1,1
Edari alkoholodunak eta tabakoa	-0,2	0,6	3,0
Jantziak eta oinetakoak	1,2	0,9	0,4
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-0,5	-0,3	2,3
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,1	0,6	0,5
Osasuna	0,0	0,8	0,7
Garraioa	3,4	1,8	2,0
Komunikazioak	0,3	0,2	-3,0
Aisia eta kultura	-0,8	-1,2	-0,8
Hezkuntza	0,8	1,0	-0,1
Jatetxeak eta hotelak	2,3	2,2	2,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,9	1,3	1,5

Iturria: INE eta Eurostat.